



Udal Musika Eskola



Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua

1.- SARRERA

Hezkuntza-proiektu honek erreferentzia-esparrua izan nahi du, Andoaingo Udaleko Musika Eskolaren irakaskuntza-jardueraren alderdi oinarritzkoenak egituratzeko: curriculumarekin lotutako alderdiak, Musika Eskolaren funtzionamendurako oinarritzko arauak, etab.

Ikastetxe baten hezkuntza-proiektuak (IHP) eskola horren komunitatea osatzen duten sektoreek beren gain hartutako hezkuntza-aukera adierazten du. Bertan, eskolaren jarduerekin lotutako oinarritzko balioak eta helburuak identifikatzen dira, diskriminaziorik eza eta hezkuntza-integrazioa izanik funtsezko balioak.

Hezkuntza-proiektu batean, alderdi hauek jasotzen dira:

- a) Hezkuntza-helburuak zehazteko abiapuntu den ingurunearen eta gainerako baldintzen deskribapena.
- b) Eskolaren jarduna definituko duten oinarritzko helburuak eta lehentasunak:
 - Eskolaren curriculum-helburuak, espezialitate bakoitzaren programazioan garatu eta zehaztu behar direnak.
 - Eskola-bizitzan parte hartzeko eredua. Bertan, eskolaren funtzionamendua arautuko duten printzipio orokorrak jasoko dira. Printzipio horiek antolamendu- eta funtzionamendu-araudian zehazten dira.
 - Inguruko gizartearekiko lotura eta tokiko kulturarekiko konpromisoa.
 - Eskolak landuko dituen proiektuak: eskola-komunitatea osatzen duten kide guztien prestakuntzari buruzkoak, hezkuntza-berrikuntzari buruzkoak, aniztasunari buruzkoak, beste eskola eta erakunde batzuekiko lankidetzari buruzkoak, edo eskolaren hezkuntza-jardura epe ertainera definitzen duen beste edozein.

Printzipio horien guztien definiziotik abiatuta, egiten diren ekintza guztiak dokumentu honetan proposatutako ildo eta irizpideetara egokitu beharko dira. Dokumentu horrek honako helburu hauek ditu:

- a) Eskolaren hezkuntza- eta kultura-eredua definitzea.
- b) Irizpideak bateratzea, koherentzia handiagoa izateko.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartzea eta inplikazioa koordinatzea.
- d) Musika Eskolaren helburuak eta horiek lortzeko bitartekoak argitzea.
- e) Inprobisazioa saihestea eta eskolaren kudeaketa eraginkorragoa bultzatzea.
- f) Musika Eskolaren berezko nortasuna sortzea.
- g) Musika Eskola osoaren ilusioak eta interesak jasotzea.

Hala, Andoaingo Musika Eskolaren Hezkuntza Proiektuak galdera hauei erantzun nahi die modu globalean:
Nor gara eta non gaude? Zer nahi dugu? Nola antolatzen gara?

Hauek dira dokumentu honen ezaugarriak:

- a) Amaitu gabe dago. Aldi baterako baliagarritasuna du, legegintzaldi-aldaketak eskatuta edo musika-eskolak proposatuta.
- b) Parte-hartzailea: informazioa trukatzeko, kontsultak egiteko, eztabaidatzeko...
- c) Motibatzailea, hartu-emana bultzatzen duelako.
- d) Adostua, malgua eta guztiek onartua.
- e) Globala, ahalik gehien biltzen duena.
- f) Musika Eskolaren nortasuna, helburuak eta antolamendua adierazten ditu.
- g) Hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa adierazten du: gurasoena, ikasleena, irakasleena eta udal-arduradunena.

Andoaingo Udal Musika Eskolaren antolamendua honako dokumentu hauek arautzen dute:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP), ingurunea deskribatzen eta zentroaren oinarritzko helburuak eta lehentasunak jasotzen dituen dokumentua.
- Barne-araudia, eskolaren antolaketa-egitura eta funtzionamendua, bizikidetzara-arauek eta abar zehazten dituenak.
- Eskolaren Urteko Plana (IUP), irakaskuntza-jardueren, irakasleen prestakuntzaren, eskolaz kanpoko jardueren eta eskolako jardura osagarrien programak jasotzen dituen dokumentua.
- Espezialitateen programazioak, non helburu teknikoak eta musikalak zehazten diren, bai eta ikasgai bakoitzaren estrategia metodologikoa eta ebaluazio-irizpideak ere.



Udal Musika Eskola



2.- MUSIKA ESKOLAREN INGURUNEAREN DESKRIBAPENA

Udal Musika Eskola Andoaingo musika eta kultur giroaren erdigunean dago. Hala, musika-prestakuntza eskaintzeaz gain, Andoaingo kulturaren dinamizatzailer ere bada. Eskolaren helburu nagusietako bat da musikarien harrobia sortzea Andoainen dauden taldeentzat, eta, beraz, ikuspegi horretatik, ezinbesteko baliabidea da musikak udalerrian iraun dezan.

Andoainen, musika asko sustatu da historian zehar, eta zenbait musikari nabarmendu behar dira, hala nola, Eulogio Saldias, Alberto Aguirre eta Luis Fraca. Musikari horiengandik fruituak jaso ditugu; besteak beste, Andoaingo udal musika-banda, Alberto Aguirre abesbatza eta herrian bertan eta kanpoan ospe handia duten musika profesional ugari.

Hortaz, musika-eskolaren ardura da musika-kultura sustatzea eta musikarien belaunaldi berriak prestatzea, Andoaingo musika-taldeen iraupena bermatzeko.

2.1 - MUSIKA-BANDA

Andoaingo musika-bandaren lehen dokumentuak 1912koak dira. Garai hartan, "Andoaingo Txaranga" zuzentzen zuen Eulogio Saldias musikari ezaguna, parrokiako organo-jotzaile ere bazen.

Harrezkero, hainbat zuzendari eta arduradun izan ditu musika-bandak, zeintzuk Andoaingo musikaren historiako etapa bakoitzaren ordezkari izan baitira. Hala, musika-banda izan da beti Andoaingo musika-kulturaren ardatz nagusia. Musika-banda historiaren testuinguruan kokatzeko, bere etapa nagusiak deskribatuko ditugu jarraian:

1900-1925 (gutxi gorabehera): Eulogio Saldias arduratu zen garai hartan "Andoaingo Txaranga" izena hartu zuen banda zuzentzeaz.

1925-1957: Alberto Aguirre herriko kultura-mugimenduaren gidari izan zen 32 urtez, eta, aldi berean, parrokia-abetesbatza eta musika-banda zuzendu zituen erretiroa hartu arte.

1957-1975: Luis Fraca estatuko karrerako funtzionarioa Andoainera etorri zen musika-banda eta musika-akademia zuzentzera, eta musika-zuzendari eta -irakasle lanetan aritu zen. Andoaindar askok ikasi zuten musika Fracarekin. 1975etik aurrera, musika-banda desagertu zen, eta Luis Fraca (Don Luis bere ikasleek ezagutzen zuten bezala) Andoaingo Musika Akademian hasi zen piano-eskolak ematen.

Garai horietan, "jaiak eta ospakizunak ohorez janztea" zen musika-bandaren helburua. Andoaingo Udalak onartutako araudi guztietan jasota dagoen puntu horrek agerian uzten du musika-bandak Andoaingo herriarentzat izan duen garrantzia.

1975etik aurrera gertatu ziren aldaketa politiko eta sozial garrantzitsuen ondorioz, herri askotan desagertu egin ziren ordura arteko erreferente kulturalak: musika-bandak. Hala, 80ko hamarkadaren amaierara arte itxaron behar izan zen, herri askotan, bandak herriko izaeraren eta kulturaren sentimendu-ardatz gisa berreskuratzeko. Andoainen kasuan, 1997an sortu zen Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda, Andoainen izandako musika-talde esanguratsuenaren berpizkunde gisa. Etapa berri horretan, Udal Musika Eskolako plantillako hainbat irakasle banda-zuzendaritzaren ardura hartu zuten beren gain. Irakasle horiek lan handia egin zuten Andoaingo bandaren martxa berreskuratzeko. Hala, irakasle horiek zentzuz, musikariz eta artxibo propioz hornitu zuten banda, garai berrietara egokituta partitura eta pieza berri ugariekin.

Musika Eskolak, bere konpromisoa betetz, musikarekiko zaletasuna sustatu eta musikarien harrobi gisa jarduten du, Andoainen musikarako gaitasuna dutenei gaitasun hori lantzen laguntzeko eta herriko musika-taldeak musikari onez hornitzeko helburuarekin. Musika-banda hainbat espezialitate biltzen dituen talde konplexua da. Espezialitate horien artean, gaur egun herri guztietan urriak diren funtsezko tresnak daude; hala nola, bonbardinoa, tuba, tronpa, fliskornoa, fagota, oboea eta abar. Musika-banda batek mailarik eta giza baliabiderik onenak izateko, plangintza ona eta gutxieneko baliabide batzuk behar dira; izan ere, espezialitate horiek guztiak desagertu egingo dira garaiz salbatzen ez baditugu. Musika-bandarekiko konpromisoak arazo horiek sakon aztertzea eta haize-instrumentuak behar bezala bultzatzea eskatzen du. Andoaingo Udalak, bere aldetik, konpromisoa erakutsi du tresna minoritarioak (tronboia eta bonbardinoa, adibidez) sustatzeko eta beste musika-tresna batzuk erosteko (adibidez, saxo baritonoa, klarinete baxua, kanpanologia edo bibrafonoa).



Udal Musika Eskola



2.2 - ABESBATZAK

Musika Eskolak hiru abesbatza ditu: abesbatza txikia, abesbatza gaztea eta helduen abesbatza. Bereziki, helduen abesbatzak hartzen du parte herrian antolatzen diren jardueretan.

Abesbatzek indar handia hartu dute herrian, eta andoaindar askoren musika-heziketarako tresna eta gozamen-iturri bihurtu dira. Abesbatza txiki eta gazteko koralista gazteen harrobi aberatsak balio izugarria du, kontuan izanik kideen adina (adinean aurrera daudenak izaten dira asko) eta errelebo-falta izaten direla herri askotako abesbatzek izaten dituzten oztopo handienak. Hala, Andoingo Musika Eskolako abesbatzek jakin dute, bandak bezala, errepertorio, planteamendu eta proiektzio berrietara egokitzen.

Halaber, Andoainen Alberto Agirre abesbatza dugu, 1982an sortua. Alberto Agirre abesbatzak aktiboki parte hartzen du herriko jaietan. Horrez gain, Andoingo parrokiarekin lotura handia duenez, urteko ospakizun liturgiko garrantzitsuenetan hartzen du parte.

2.3 - BESTE TALDE BATZUK

Musika egiteko modu asko daude, eta, beraz, musika talde mota asko sor daitezke. Denok nahi genuke Andoainek talde ugari eta onak izatea, mota eta genero guztietakoak. Horregatik, gure helburuetako bat gure ikasleak musika-estilo modernoan nahiz klasikoan trebatzea da.

Horretarako, Andoingo Musika Eskolak musika-taldeak sortzea bultzatzen du bere eguneroko jardunean.

3.- MUSIKA ESKOLAREN HELBURUAK

3.1 - ESKOLAREN XEDEA

Andoingo Musika Eskolaren xede orokorra 2007ko urtarrileko batzaraldian onarturiko barne-araudiko 2. artikuluan jasotzen da. Honako hau dio artikulua horrek:

2. artikulua.

Udal Musika Eskolaren xede nagusia bere ikasleei musika-irakaskuntza zerbitzua eskaintzea da, hala haur gazteei nola helduei, aintzat hartu gabe adina, eta musika kultura sustatzea Andoingo herritarren artean.

3.2 - MUSIKA ESKOLAREN HELBURUAK

Musika Eskolarako ezarritako helburuei dagokienez, aipatutako barne-araudian helburu orokor hau ezartzen da:

6. artikulua.

Eskolako plan pedagogikoak eskolaren nortasuna zehaztuko du eta lortu beharreko helburuak finkatuko, era horretara Eskolaren jardun egokia bermatze aldera. Gainera, plan horrek Hezkuntza Erkidegoko kide guztiak lotu eta behartuko ditu honako helburu honi begira: musikan prestakuntza praktikoa eskaintzea adin orotako zaletuei, eta horrez gain, bokazio eta gaitasun berezia azaltzen dutenei ikasketa profesionalak egin ditzaten orientabidea eta prestakuntza eskaintzea.

Artikulu horretan adierazitako azken helburua kontuan hartuta, Musika Eskolak honako helburu hauek ditu:

1. – Musikaren praktika artistikoa aurrera eramateko eskaera zabala asetzea.
2. – Musika arloko ikasketak eskaintzea, herritarrek musika modu aktiboan praktikatzeko helburu nagusiarekin –banaka zein taldeka–, betiere, abiapuntu izanik jarduera kokatzen den gizarte-eremuarekiko interakzioa.
3. – Musika egitate artistiko gisa modu orokorragoan ulertzeko gutxieneko alderdi teoriko egokiak irakastea, musika sakonago ikasi nahi duten ikasleek egindako eskaritik abiatuta edo eskolaren beraren ekimenez.



Udal Musika Eskola



4. – Adin guztietako ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, bizitza osoko etengabeko ikaskuntza gisa, hala, gaitasun artistiko berriak eskuratzen lagunduz, ezagutzak eguneratuz eta abileziak eta gaitasunak areagotzen lagunduz.

5. – Adierazpide artistiko bakoitzaren aukera ahalik aberats eta dibertsifikatuena eskaintzea, eta horien guztien arteko interakzioa sortzea, gizakiaren sormen mota ugarien arteko sinergiak eta ikuspegi bateratua bultzatuz.

6. – Musika-irakaskuntzaren plangintza eta garapena pertsona bakoitzaren gaitasun eta trebetasunetara eta norberaren errealizazio pertsonalera egokitzea, irakaskuntza-askatasunaren eta -autonomiaren testuinguruan, eskaintza ikasleen interes eta ikaskuntza-erritmoetara egokituz.

7. – Arte-adierazpen guztiak ezagutzeko eta gozatzeko zaletasuna sustatzea, eta ikasleen eta herritarren musika-sen kritikoa lantzea.

8. – Musikaren irakaskuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea, guztiek aukera izan dezaten musika-ikasketak egiteko, inolako bazterketarik gabe eta hezkidetzaren alde eginez.

9. – Irakasleen eta eskolako gainerako irakasleen hobekuntza eta etengabeko eguneratzea sustatzea, musikaren irakaskuntza hobetzen laguntzeko, irakaskuntza horretan kontuan izanik berdintasunarekin eta genero-ikuspegiarekin lotutako prestakuntza eta hezkidetzak.

10. – Gaitasun eta bokazio artistikoa duten ikasleak orientatzea eta ondorengo ikasketak (profesionalak zein goi-mailakoak) egiteko aukera izan dezaten prestatzea.

11. – Herritarrei zerbitzu kohesionatua, eraginkorra eta kalitatezkoa eskaintzea, besteak beste, Euskadiko musika-hezkuntzako ekosistema osatzen duten eragile guztiekin etengabeko komunikazioa eta koordinazioa sustatuz.

12. – Bertako tradizioak eta kultura-ondarea biltzea, sistematizatzea eta zabaltzea, eta eskola kokatuta dagoen herriko kultur nortasunaren itsasargi bihurtzea.

13. – Eragin positiboa izatea herri-kulturaren garapenean, Musika Eskolako ikasleek osatutako taldeek urte osoan zehar emanaldi publikoak eginez.

14. – Herri-kulturan eragin positiboa izatea, ikasleen prestakuntzaren bidez, eta horrez gain, iturriak aztertuz, sortuz eta zabalduz, arteak gizaratean duen eragin hedatzailearen bitartez.

4.- IRAKASKUNTZA-ESKAINZAREN ANTOLAKETA

64/2024 Dekretuaren 44. artikuluan jasotzen den moduan, Andoingo Udal Musika Eskolako irakaskuntza-eskaintza lau mailatan banatzen da:

- 1. maila edo lehen harremanekoa: 4 eta 7 urte bitarteko ikasleentzat. Maila horretan, ez da eskatzen musikarekin lotutako inolako gaitasunik. Haurraren nortasunaren garapen harmonikoa sustatzen da, irakaslearekiko eta gainerako ikaskideekiko interakzioaren bidez eta gorputz-jardueraren eta zentzumenen bidez. Adin horretako ikasleek beren buruarekiko kontzientzia hartzen dute, barne-harmonia duten eta ingurukoekin harmonian dauden izaki gisa. Pixkanaka, bost urtetik aurrera, musikarekin eta dantzarekin lotutako jarduera espezifikagoak egiten hasten dira. Hala, 2. mailara igarotzean, beren gustu eta gaitasunetara ondoen egokitzen den espezialitatea aukeratu ahal izango dute.

- 2. maila edo espezialitatearen hastapeneko maila. Musika Eskolan hasi nahi duten 8 urtetik gorako ikasleentzat, adin-mugarik gabe. Maila horretan, musikaren praktika artistikoa adierazpen-elementu bat gehiago bezala eta norberaren nortasuna eta sentsibilitatea garatzeko elementu bezala kontzeptualizatzen dute ikasleek. Irakasleek musikaren alderdi tekniko lantzen dute, baina izaera instrumentaleko elementu gisa, alegia, ikasleen adierazkortasuna hobetzeko beharrezkoa den elementu gisa.

Maila horretan, musika jotzeko talde batean hasteko beharrezkoa den gaitasuna lortzen dute ikasleek. 2. mailan hasteko, ez dago adin-mugarik.

Ikasleak talde instrumental batean hasiko dira, tutoreak proposatuta, eta eskatutako maila lortzen dutenean.

- 3. maila edo espezialitatearen finkapena. Aldez aurreko musika-ezagutzak izanik, musikaren jarduera artistikoan sakondu nahi duen edonorentzat da.

Musika Eskolako musika-taldeetan parte hartzeko beharrezkoa den musika-tresnen interpretazio, kantu edo dantza arloko gaitasuna eta taldeen kalitatea hobetzen duen segurtasuna eta ezagutza lortzen dira. Halaber, maila horretako ikasleek banakako jardueretan eta beste formatu batzuetako interpretazio-taldeetan parte hartzeko gaitasuna lortzen dute, beti ere, maila horretako musika-ezagutzen arabera.

- 4. maila edo espezialitatearen hobekuntza. Maila horretan, norbere interesa, dedikazioa eta gaitasuna dira muga bakarra. Musika Eskolako taldeetan parte hartuz lantzen da gaitasun hori.

2. eta 3. mailetan, honako irakasgai hauek ematen dira:

a) Ikasgai nagusia: espezialitate guztiak biltzen ditu (abesbatza ere bai, soilik abesbatza aukeratzen duten ikasleen kasuan). 2. eta 3. mailako ikasle guztiak irakasgai nagusi bat egin behar dute nahitaez, Musika Eskolako ikasle izateko.

b) Talde instrumentalak: musikaren arloko gaitasunak lantzeko, taldean musika jotzeari ematen zaio lehentasuna. Ikasleak 2. mailatik aurrera has daitezke talde instrumentaletan, betiere, tutoreak esandakoa kontuan hartuta.

c) Musika-hizkuntza: 2. mailan irakasten da, ikasleen musika-prestakuntza osatzeko. Musika Eskolak irakasgai horiek sustatzeko neurriak hartuko ditu, egokituz jotzen baititu ikasleen prestakuntza integralerako.

4.1 - 1. MAILA edo LEHEN HARREMANEKOA

4 eta 7 urte bitarteko haurrei bakarrik zuzendutakoa.

4.1.1 1. mailaren definizioa

1. maila edo lehen harremanekoa da haurrak soinu munduarekin duen lehen esperientzia. Haurrek musikarekin duten lehen harreman horretan garatu beharreko gaitasunen artean, ahots eta musika-tresnen bidez musika interpretatzeko gaitasuna lantzen da, musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak eta baliabideak erabiliz. Horrez gain, lengoia eszenikoaren oinarrizko elementuak eta baliabideak erabiltzen dira, horiek ezagutu, interpretatu eta komunikatzeko. Era berean, musika bakarka nahiz taldean jotzea sustatzen da, ahotsa, instrumentuak, gorputza eta tresna teknologikoak erabiliz. Gorputz- eta musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak erabiltzea ere bilatzen da, eta formatu desberdinetako talde eta proposamen artistikoetan modu kooperatiboan parte hartzeko estrategiak ere lantzen dira. Azkenik, inguruari ekarpen bat egiten dioten jarduera artistikoak egitea, esperientzia horiez gozatzea eta ikasitakoez jabetzea da helburua.

4.1.2 1. mailako helburuak

- 1.- Musikaz gozatzen ikastea, musika garatzeko eta motibatzeko jarduera gisa eta sentimenduak adierazteko bitarteko gisa hartuta.
- 2.- Haurren nortasunaren garapena modu harmonikoan sustatzea, irakaslearekiko eta gainerako ikaskideekiko interakzioaren bidez eta soinuarekin eta mugimenduarekin lotutako jarduerak eginez.
- 3.- Barne-entzumena lantzen laguntzea, musikarekin batera gorputz-mugimenduak eginez.
- 4.- Musika lan-ohiturei laguntzen dien jardueratzat hartzea.

4.1.3 1. mailaren antolaketa

1. maila edo lehen harremanekoa hiru ikasturtetan banatzen da: musika-tailerra 1, 2 eta 3. Ikasleak zuzenean has daitezke hiru ikasturte horietan, adinaren arabera, taula honetan adierazten den moduan:

| <i>Maila</i> | <i>Adina</i> | <i>Ratioa</i> | <i>Asteko denbora</i> |
|--|--------------|---------------|--|
| <i>Musika-tailerra 1</i> | 4 | 6-16 | 45 minutuko 2 saio |
| <i>Musika-tailerra 2</i> | 5 | 6-16 | 45 minutuko 2 saio |
| <i>Musika-tailerra 3</i> | 6 | 6-16 | 45 minutuko 2 saio |
| <i>M.-hizkuntzaren hastapenak</i> <i>Orientazioa</i> <i>Kantu korala</i> | 7 | 6-16 | 45 minutuko 2 saio 30 min. saio 1 30 min. saio 1 |

1. mailan, saio guztiak taldekoak izaten dira, eta tailer bakoitzaren ordutegia zehazteko orduan, bi irizpide hartzen dira kontuan:

- 1.- Ikasle gazteenei arratsaldeko lehen orduak eskainiko zaizkie (eskolaz kanpoko ordutegia).
- 2.- Asteko bi saioetan, tartean egun bat utzi beharko da gutxienez, eta, beraz, ezingo dira egin bi saioak segidako egunetan.

1. mailako ikasleei plaza gordeko zaie hurrengo mailako lehen ikasturterako (2. maila edo hastapeneko), eta beraz, lehenetsuna izango dute 2. mailan zuzenean matrikulatzen diren ikasle berrien aurretik. Aukeratu nahi duten musika-tresnak plaza mugatuak baditu eta ikasle guztiak onartu ezin badira, zozketa bat egingo da espezialitate horretarako hautagai guztien artean.

Hastapeneko ikasturtean, ikasle guztiek kantu korala ere egin beharko dute.

4.1.4 1. mailako metodologia

1. mailako edo lehen harremaneko mailaren estrategia metodologikoak ezaugarri hauek ditu:

- 1.- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea. Ikasketa guztia praktikoa izango da.
- 2.- Orff eta Kodály metodoak.
- 3.- Ikasle guztiek gutxienez bi kontzertutan parte hartuko dute ikasturte bakoitzean, eta andoaindar guztiek aukera izango dute gelan egindako lana ikusteko.
- 4.- Jarduera metodologikoei dagokienez, batzuk ikasgelatik kanpo egingo dira (adibidez, kontzertuak, barne-entzunaldiak eta entsegu orokorrak). Jarduera horien bidez, gelan lantzen ez diren helburu batzuk lortu nahi dira; besteak beste, jarrerarekin lotutakoak, kontzertuetako portaera, isiltasuna baloratzea, agertokiko diziplina ikastea, eta abar.

4.2 - 2. MAILA edo ESPEZIALITATE-HASTAPENA

2. maila edo hastapeneko 8 urtetik gorako ikasleei zuzenduta dago (Musika Eskolako 1. maila egin dutenak nahiz ikasle berriak), eta maila horretan sartzeko ez dago adin-mugarik.

4.2.1 2. mailaren definizioa

Musika-espezialitateen maila honetan, oinarrizko musika-elementuak modu kontzientean eta testuinguruarekin lotuta erabiltzea lortu nahi da, oinarrizko praktika artistikoa aurrera eramanez eta inguruko kultur bizitzan parte hartuz. Hala, gaitasun hauek lortu nahi dira, besteak beste: batetik, musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak erabiliz –ahoz eta musika-tresna bidez– interpretatzeko gaitasuna eta, bestetik, hizkuntza eszenikoa adierazteko, interpretatzeko eta komunikatzeko hizkuntza gisa erabiltzeko gaitasuna. Maila horretan, banakako nahiz taldeko musika-interpretazioa lantzen da, ahotsa, musika-tresnak, gorputza eta teknologia erabiliz. Horrez gain, gorputz- eta musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak erabiltzen dira, eta hainbat formatutako talde eta proposamen artistikoetan parte hartzeko estrategiak lantzen dira. Azkenik, ingurunea aberasten duten jarduera artistikoak bultzatzen dira, eta esperientzia horiez eta ikasitakoez modu kontzientean gozatzea baloratzen da.

2. mailan, aukeratutako espezialitatea interpretazio-talde batean lantzeko gaitasuna lortu beharko dute ikasleek. Maila horretan hasteko ez dago adin-mugarik.

4.2.2 2. mailako espezialitateak

Hona hemen Andoaingo Udal Musika Eskolak eskaintzen dituen aukerak, musika-tresnen familien arabera antolatuta:

| <i>Familia</i> | <i>Tresnak</i> |
|--------------------------------------|---|
| <i>Hari sakatukoak</i> | <i>Gitarra, Gitarra elektrikoa, Baxu elektrikoa</i> |
| <i>Hari igurtzikoak</i> | <i>Biolina</i> |
| <i>Zurezko haize-instrumentuak</i> | <i>Txirula, Klarinetea, Saxofoia</i> |
| <i>Metalezko haize-instrumentuak</i> | <i>Tronpeteta, Tronboia</i> |
| <i>Perkusio-instrumentuak</i> | <i>Familia osoa</i> |
| <i>Tekladunak</i> | <i>Pianoa, Akordeoia eta Organoa</i> |
| <i>Ahotsa</i> | <i>kantua eta kantu korala</i> |
| <i>Euskal tradiziokoak</i> | <i>Txistua</i> |

4.2.3 2. mailako helburuak

- Musikak herrien eta pertsonen hizkuntza artistiko eta adierazpide gisa duen garrantziaz ohartzea, bertako musikan –euskal musikan– interes berezia jarriz.
- Sentsibilitate artistiko eta estetiko adierazteko gai izatea, garai eta estilo desberdinetako musika interpretatzeko eta gozatzeko, komunikatzeko aukerak aberasteko eta, musikaren bidez, norbera errealizatzeko.
- Jendaurrean musika-tresna bat jotzeko gai izatea, musika komunikabide gisa bizitzeko beharrezkoa den segurtasunarekin.
- Musika-tresna bat taldean jotzea, beste ahots batzuk entzutera ohituz, taldera harmonikoki egokitzea eta talde-lanerako gaitasunak lantzea, besteak beste, isiltasuna, errespetua eta taldekideen arteko lankidetzaren bultzatuz.
- Lan pertsonalaren garrantziaz jabetzea, banakako ikasketetan nahiz taldean musika-tresna jotzean, taldekideekiko konpromisoa hartuz, eta nork bere buruari entzuteko eta nor bere buruarekin kritikoki izateko gaitasuna lantzea, ahalegintzeko eta nork bere burua gainditzeko jarrerak bultzatuz.
- Isiltasuna baloratzea, kontzentrazioa, barne-entzumena eta pentsamendu artistikoa garatzeko ezinbesteko elementu gisa.
- Beren gaitasun eta interesagatik ikasketa arautuak (Kontserbatorioko maila ertaina) egiteko baldintzak betetzen dituzten ikasleei orientabidea ematea eta prestakuntza sakonagoa eskaintzea.

4.2.4 2. mailaren antolaketa

2. mailak edo hastapenekoak hiru ikasgai ditu: ikasgai nagusia, talde instrumentala eta musika hizkuntza.

Maila horretako ikasle guztiak ikasgai nagusi bat aukeratu behar dute matrikulatu ahal izateko, Andoaingo Udal Musika Eskolak eskaintzen ez dituen ikasgaien kasuan izan ezik. Kasu horretan, soilik musika-hizkuntzan matrikulatzeko aukera egongo da.

2. mailako ikasgai nagusia (musika-tresna edo kantua) urte kopuruaren arabera antolatuko da (2.1, 2.2, etab.), baina ez da finkatuko helburuak betetzeko edo lortu beharreko gaitasuna lortzeko beharrezkoa den urte kopuru zehatz bat. Espezialitate bakoitzeko programazioa zehaztean, 2. mailari dagozkion helburu orokor eta eduki batzuk zehaztuko dira.

Mailaz igotzeko, beharrezkoa izango da ikasleak helburuak betetzea eta lehen adierazitako gaitasun-maila lortzea.

4.2.4.1 Ikasgai nagusia

Espezialitate guztiak (musika-tresnak eta kantua) ikasketa nagusiak dira.

Salbuespen gisa, abesbatza ikasgai nagusia izan daiteke, soilik abesbatzan parte hartu nahi duten ikasleen kasuan.

Era berean, abesbatza bakarrik dauden ikasleek maila horretan matrikulatu ahal izango dute. Hala, kasu horretan, abesbatza ikasgai nagusizat hartuko da, kontuan izanik abesbatzak, berez, talde-izaera duela.



Udal Musika Eskola



Ikasle bakoitzak 30 minutuko saio bat izango du astean aukeratutako musika-tresna bakoitza lantzeko. Horrez gain, irakasleak klase partekatua antolatu ahal izango ditu, ikasle bakoitzeko asteko klaseaz gain, eta aldian behin, taldeko klaseak ere antolatuko dira, bestelako jarduerak egiteko (entsegu orokorrak, entzunaldiak...).

Maila amaitzean eta mailaz igotzean, maila gainditu izana adierazten duen diploma bat emango dio Musika Eskolak ikasleari. Diploma horrek ez du balio ofizialik.

Gitarraren kasuan, gitarra elektrikoa eta baxu elektrikoa espezialitateak ikasgai osagarritzat jotzen dira. Gitarra aukeratzeko duten ikasleak ikasgai nagusiarekin hasiko dira, eta, aurrerago, musika-tresnaren 4. urtetik aurrera, gitarra elektrikoa edo baxu elektrikoa ikasi ahal izango dute, betiere tutorearen irizpidearen arabera, eta irizpide orokor gisa, 12 urtetik aurrera.

4.2.4.2 Talde instrumentala

Talde instrumentalaren ikasgaia ikasgai nagusiaren 2. ikasturtetik aurrera eskaintzen da, eta ikasgai osagarri izaera du ikasle guztientzat. Ikasleak talde instrumental batean hasiko dira, tutoreak proposatuta, eta eskatutako maila lortzen dutenean. Hauek dira talde instrumentalaren ikasgaiaren helburuak:

- 1.- Bakoitzak bere papera taldean txertatzeko gaitasuna garatzea.
- 2.- Besteen ahotsak entzun eta harmoniaren kontzeptua bereganatzea.
- 3.- Ahotsen funtzioa ulertzeko gaitasuna garatzea: melodia/akonpainamendua.
- 4.- Musikaren barne-pultsua ulertzea, eta norberaren erritmoa taldearen pultsuan txertatzeko gai izatea.
- 5.- Talde-lanaren bidez, hainbat balio lantzea: errespetua, isiltasuna, lankidetzeta, etab.

Ikasleak, musika-tresna menderatu ahala, talde handiagoetan sartu ahal izango du. Hala, bigarren mailako talde instrumentaletan parte hartu ahal izango du. Talde horietako bakoitzeko saioek iraupen hau izango dute, oro har:

| <i>Talde instrumentala</i> | <i>Asteko saio bakoitzeko denbora</i> |
|-------------------------------|---------------------------------------|
| <i>Bikotea edo hirukotea</i> | <i>30 minutu</i> |
| <i>Talde Anitza</i> | <i>45 minutu</i> |
| <i>Musika-tresna taldeak*</i> | <i>60-90 minutos</i> |

* *Musika-tresna taldeak: MuGaz taldea, gitarra taldea, teklatu taldea, hari taldea, etab.*

Irizpide orokorra da hori, eta tutore bakoitzak erabakiko du taldeak nola osatu, ikasleen ezaugarrien arabera. Kantu koraleko bi ikasturteak egin dituzten ikasleek abesbatza parte hartu ahal izango dute. Bestalde, ikasketa nagusi gisa musika-tresna bat hautatu duten ikasleek abesbatza aukeratu ahal izango dute taldeko bigarren ikasgai gisa.

Ikasle guztiak musika-eskolako talde batean baino gehiagotan egon daitezke.

4.2.4.3 Musika-hizkuntza

Musika-hizkuntza lau ikasturtetan programatuta dago. Irakasgai horren bidez, musika-tresna bat jotzeko beharrezkoak diren musika-ezagutza teoriko-praktikoak jasoko dituzte ikasleek. Salbuespen-kausetan, prozedura hau jarraituko da:

- Gurasoen edo tutoreen eskaera justifikatua.
- Tutorearen aldeko txostena.
- Musika Eskolako zuzendaritzaren oniritzia.

Aurretiazko musika-ezagutzekin 2. mailan matrikulatzen diren ikasleen kasuan, musika-hizkuntzako oinarrizko ezagutzei buruzko proba bat egingo zaie, eta horren arabera zehaztuko da maila horretan sartzeko maila duten ala ez. Astean 90 minutuko saioak egingo dira lau ikasturteetan, 45 minutuko bi txandatan banaturik. Taldeen ordutegiak zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- 1.- Adinez txikiak direnei arratsaldeko lehen orduak eskaintzea (eskolaz kanpoko ordutegia).

2.- Asteko bi saioetan, tartean egun bat utzi beharko da gutxienez, eta, beraz, ezingo dira egin bi saioak segidako egunetan.

Lehenengo ikasturtean, ikasle guztiak kantu koraleko ikasgai osagarria ere egingo dute, (astean 30 minutu). Kantu koraleko ikasgaia amaitu ondoren, musika-tresna bat aukeratu duten ikasle guztiak sartu ahal izango dira Musika Eskolako abesbatzan, bigarren talde instrumental gisa.

Musika-hizkuntza ikasgaia honela antolatuko da:

| <i>Maila</i> | <i>Adina</i> | <i>Musika hizkuntza</i> | <i>Ratio</i> | <i>Kantu korala</i> |
|--------------|--------------|-------------------------|--------------|----------------------------|
| 2.1 | 8 urte | 1. Musika Hizkuntza | 6-16 | Kantu korala (nahitaezkoa) |
| 2.2 | 9 urte | 2. Musika Hizkuntza | 6-16 | Abesbatza (aukerakoa) |
| 2.3 | 10 urte | 3. Musika Hizkuntza | 6-16 | Abesbatza (aukerakoa) |
| 2.4 | 11 urte | 4. Musika Hizkuntza | 6-16 | Abesbatza (aukerakoa) |

Maila bakoitzak gutxienezko eduki batzuk izango ditu, eta ikasleek eduki horiek menderatu beharko dituzte hurrengo mailara igarotzeko. Ikasle bat gutxienezko horietara iristen ez bada, beste urte batez ikasturte bera egiteko aukera izango du.

Ikasle helduentzako musika-hizkuntzako ikasgaiak adierazitako irizpide eta helburu berak izango ditu, eta ikasturte bakoitzeko helburuak taldearen ezaugarrien arabera zehaztuko dira. Honela antolatuko dira:

| <i>Maila</i> | <i>Saio bakoitzaren iraupena, asteko</i> |
|---------------------|--|
| 1. musika-hizkuntza | 60 minutu |
| 2. musika-hizkuntza | 60 minutu |
| 3. musika-hizkuntza | 60 minutu |

2. mailako ikasle helduak edozein ikasturtetan matrikulatu ahal izango dira musika-hizkuntzan, tutoreak aldeko txostena egin ondoren.

4.2.5 2. mailako metodologia

64/2024 Dekretuaren arabera, metodologia ikasle bakoitzari egokitu behar zaio, eta, metodologia zehaztean, kontuan izan behar dira, besteak beste, ikaslearen gaitasun psikomotorrak eta aurretiazko musika-ezagutzak.

Hauek dira metodologia hori zehazteko kontuan izan beharreko printzipio nagusiak:

- Aurkikuntza bidezko ikaskuntza
- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea
- 2. mailako curriculumeko ikasgaien arteko disziplinarrekotasuna
- Musika-tresnen ikaskuntza esanguratsuen eta praktikaren bidez, ikaslearen autonomia garatzea.

Estrategia metodologikoak printzipio hauek izango ditu oinarri:

1. Musika-tresnen irakaskuntza aurkikuntza bidezko ikaskuntzan eta entzumen- eta imitazio-metodologian oinarritzen da.

2. Teknika eta interpretazio arloko kontzeptu gehienak lantzen dira saioetan, baina batzuetan, erreperitorioan arlo bat edo bestea lantzen da bereziki. Astean 30 minutuko saio bat egiten da irakaslearekin. Jaso beharreko edukiak saio horietan banatuko dira, irakaslearen irizpidearen eta ikasleak eskola-orduetan agertzen dituen interesen arabera.



Udal Musika Eskola



3. Etxean praktikatzea funtsezkoa da musika-tresna gero eta gehiago menderatzeko. Astero, irakasleak zenbait lan bidaliko dizkio ikasleari, praktikatzeko. Tutoreak taula bat egingo du ikasle bakoitzarentzat, eta taula horretan, musika-tresna praktikatzea komeni den denbora zehaztuko da.

4. Saio partekatuak egitea komeni da, gutxienez lehenengo bi ikasturteetan, ikasleek elkarri entzuteko eta esperientzia horren bidez ikasteko. Saio partekatuak egin ondoren, talde instrumentalera pasako dira.

5. Ohiko saioez gain, gelatik kanpoko jarduerak egingo dira; horien artean, kontzertuak, barne-entzunaldiak eta entsegu orokorrak. Jarduera horien bidez, gelan lantzen ez diren helburu batzuk lortu nahi dira; besteak beste, jarrerarekin lotutakoak, kontzertuetako portaera, isiltasuna baloratzea, agertokiko diziplina ikastea, eta abar.

6. Truke-kontzertuak musika-irakasketa eskaintzen dituzten beste zentro batzuekin. Musika Eskolaren helburuetako bat gainerako musika-eskolekin koordinatzea da, erkidego mailan nahiz erkidegotik kanpo, irakaskuntza-metodologiak elkarbanatzeko. Beraz, Musika Eskolak horrelako trukeak bultzatuko ditu, udalerriko nahiz udalerritik kanpoko taldeekin.

4.2.6 2. mailako ebaluazioa

64/2024 Dekretuak ezartzen duen bezala, etengabeko ebaluazioaren edo etengabeko jarraipenaren bidez egiten da ebaluazioa; hau da, saio guztietan baloratuko da ikasleen eritimoa, saioen aprobetxamendua eta etxean egiten duten lan pertsonala.

Beste ebaluazio-tresna bat jendaurreko entzunaldiak izango dira. Horietan, ikasleek lortu dituzten gaitasun teknikoak eta adierazpenekoak eta komunikatzeko duten gaitasuna erakutsi beharko dituzte.

2. mailako edo hastapeneko ebaluazio-tresnen artean, nabarmentzekoa da Mailaz Igarotzeko kontzertua. Jarduera hori ikasturte bakoitzaren amaieran programatzen da, 2. mailako helburuak bete dituzten ikasleak hurrengo mailara pasa aurretik. Dena den, kontzertu hori ez da erabakigarria izango ikaslea mailaz igotzeko ala ez igotzeko.

Ikasleei eta gurasoei edo tutoreei ebaluazioaren berri emateko, txosten bat emango zaie lau hilean behin. Txosten horretan, teknika, interpretazio eta jarrera arloko bilakaera zehaztuko da, eta horrez gain, irakasleak beste ohar batzuk ere egin ahal izango ditu. Ebaluazio hori gida gisa erabiliko da tutore-bileretan.

Irakasle guztiek hartuko dute parte ebaluazio prozesuan, tutoreak koordinatuta. Irakasleak elkarlanean arituko dira ebaluazio-prozesu osoan eta dagozkion erabakiak hartzeko orduan.

4.3 - 3. MAILA EDO ESPEZIALITATEA FINKATZEA

2. maila gainditu duten ikasleei eta 3. mailan sartzeko proba gainditzen duten ikasle berriei zuzendua dago.

4.3.1 3. mailaren definizioa

3. mailan, ikasleen musika-gaitasunak hainbat arlotan indartzea da helburua. Musika banaka nahiz taldean jotzeko jarduera areagotzen da, ahotsa, tresnak, gorputza eta tresna teknologikoak erabiliz. Hala, musika-tresnarekin lotutako gaitasunak areagotzea da helburua, balio artistiko handiko praktika artistiko konplexuetan parte hartzeko. Inprobisatzea eta hainbat musika-hizkuntzaren bidez proposamen artistikoak sortzea ere helburu garrantzitsuak dira. Halaber, hainbat diziplinako proiektu artistiko pertsonalak eta kolektiboak egitea sustatzen da. Gainera, musika-ekoizpenak kritikoki baloratzea eta errespetuz gozatzea sustatzen da, baita musikarekin lotutako alor profesionalak ezagutzea ere.

4.3.2 3. mailako espezialitateak

2. mailan edo hastapeneko mailan eskaintzen diren berberak.

4.3.3 3. mailako helburuak

Hauek dira 3. mailako edo finkatze-mailako helburu orokorrak:

- 1.- 2. mailako teknika eta adierazpen arloko helburuak sakontzea.
- 2.- Taldeko musika eta estilo-aniztasuna sustatzea: klasikoa, modernoa, jazza, folka...

- 3.- Ikaslearen kontzeptu teorikoak garatzea, musikaren eta musikaren interpretazioaren dimentsio berri eta zabalago bat eskaintzeko.
- 4.- Ikasleen sormen-lana sustatzea, inprobisazioaren hizkuntza erabiliz.
- 5.- Ikaslearen garapen eta nortasun musikala bultzatzea, mota guztietako musika entzun dezan sustatuz.
- 6.- Andoaingo kultura, musika eta musikariak gehiago ezagutzea.

4.3.4 3. mailaren antolaketa

3. mailaren edo finkatze-mailaren antolaketa hastapeneko mailaren antzekoa da, eta alderdi pedagogikoak gaitasun-mailara egokituko dira.

3. maila 2. maila edo hastapeneko bezala egituratzen da, eta edukiak ikaslearen gustu eta interes musikalen arabera antolatzen dira.

Maila honetan zuzenean matrikulatu nahi duten ikasle berriek proba bat egin beharko dute aukeratutako musika-tresnaren tutorearekin.

Taldeko musika izango da maila honen helburu nagusia, eta nahitaezkoa izango da gutxienez 3. mailako talde batean parte hartzea.

Hauek dira 3. mailako taldeak:

| <i>Taldea</i> | <i>Saioen iraupena, asteko</i> |
|----------------------------|--------------------------------|
| <i>Ganbera-musika</i> | <i>60 minutu</i> |
| <i>Ganbera pianoarekin</i> | <i>30 minutu</i> |
| <i>Abesbatza</i> | <i>60-90 minutu</i> |
| <i>Teklatu-orkestra</i> | <i>60-90 minutu</i> |
| <i>Akordeoi-orkestra</i> | <i>60-90 minutu</i> |
| <i>Perkusio-taldea</i> | <i>60-90 minutu</i> |
| <i>Gitarra-taldea</i> | <i>60-90 minutu</i> |
| <i>Konboak</i> | <i>60 minutu</i> |
| <i>Musika-banda</i> | <i>90 minutu</i> |
| <i>Soka-taldea</i> | <i>60-90 minutu</i> |

Ikasle guztiak musika-eskolako talde batean baino gehiagotan egon daitezke.

Ikasleak maila horretarako ezarritako helburuak gainditzen dituzenean, 4. mailara igaro ahal izango da. Musika Eskolak egiaztapen-diploma bat emango dio. Diploma horrek ez du balio ofizialik.

4.3.5 3. mailako metodologia eta ebaluazioa

Printzipio metodologikoak eta ebaluazioa 2. mailako antzekoak izango dira. Ikus 4.2.5 eta 4.2.6 puntuak.

4.3.6 3. mailako ikasgai osagarria

3. Mailan ikasgai teorikoa izango da osagarria, 2. Mailako Musika Hizkuntza ikasgaiari jarraipena emango diona. Ikasleentzat hautazkoa izango da eta bertan hainbat osagai teoriko eskainiko dira, besteak beste, harmonia, musikaren estetika, musikaren historia, e.a.

Ikasgai honek ordubeteko bi saio izango ditu astean, eta hiru ikasturte izango ditu. Saiatu behar da taldean egiten baina, beti ere, moldatu beharko zaio momentuko eskaerari.

4.4 - 4. MAILA EDO ESPEZIALITATEAREN HOBEKUNTZA

3. maila edo finkatze-maila gainditu duten ikasleentzat, eta/edo maila horretan matrikulatu nahi duten ikasle berrientzat, baldin eta maila horretan zuzenean sartzeko nahikoa ezagutza dutela frogatzen badute.

4.4.1 4. mailaren definizioa

4. mailan, musika interpretatzeko maila nabarmena lortzea da helburua, bakarlari nahiz talde gisa eta musika- eta dantza-akonpainamendu gisa. Musika-tresna jotzeko eta errepertorioa interpretatzeko teknikak menderatzeari jartzen zaio arreta, eta musika-tresna osagarriak ere erabiltzen dira, beharrezkoa bada. Musika-printzipioen ezagutza sakona eta hainbat esparru profesionaletan integratzeko gaitasuna baloratzen dira. Gainera, konposizioa lantzen da, hizkuntza artistikoen elementu konplexuak erabiliz eta arlo bakoitzeko tresnak eta teknikak aplikatuz. Esperimentazioa eta inprobisazioa estimulatu dira, hizkuntza artistikoen tresnak eta teknikak erabiliz, diziplinazko edo diziplinaz gaindiko proiektuak garatzeko, bakarka nahiz beste batzuekin elkarlanean.

4.4.2 4. mailaren helburuak

- 1.- Musikaren kulturarekiko interesa asetuz pertsona gisa errealizatu nahi duten ikasleen eskariari erantzutea, ikasle horiek beren buruarekiko edo inguruarekin orekan jarritz.
- 2.- Musika Eskolako taldeak sustatzea (banda, abesbatza, akordeoi-, perkusio- eta teklatu-taldeak, etab.), Andoaingo musika-taldeen harrobi gisa.

4.4.3 4. mailaren antolaketa

4. mailako irakasgai nagusia talde instrumentala izango da, oro har. Nolanahi ere, ikasle guztiek musika-tresnaren edo kantuararen espezialitatea ikasi ahal izango dute, astean 45 minutuz, betiere tutoreak horren aldeko iritzia adierazten badu. 4. mailako talde instrumentalak edo lehenasunezkoak 3. mailan adierazitakoak izango dira. Bestalde, maila horretako irakasgai teoriko osagarriak 3. mailakoen berdinak izango dira, eta 4. mailako ikasleek ere eskatu ahal izango dituzte, nahi izanez gero.

5. PLAZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Espezialitate bakoitzeko plaza hutsak honako irizpide orokor hauen arabera esleituko dira, indarrean dagoen udal-ordenantzaren arabera:

- Lehenasunezko ikasleak. Plazak esleitzerakoan, lehenasuna izango dute ikasturte bakoitzean musika-tresnarako edo kanturako orientazioa egin duten ikasleek.
- Ikasle horien eskariak espezialitatearen batean dagoen eskaintza gainditzen badu, zozketa publikoa egingo da lehenasun-ordena zehazteko.
- Zozketa horretatik ateratzen den zerrendatik, une horretan hutsik dauden plaza guztiak esleituko dira, eta gainerako ikasleak itxaron-zerrendan geratuko dira. Itxaron-zerrenda hori urte horretako irailaren 30era arte egongo da indarrean. Urriaren 1etik aurrera, zerrenda horretako ikasleek lehenasuna galduko dute, eta matrikulatu berri direnek izango dute lehenasuna. Beraz, egindako bigarren aukeran hasitako ikasleek diziplina aldatzeko aukera izango dute, itxaron-zerrendako lehenasun-ordena errespetatuz.
- Matrikulatu berri diren ikasleek espezialitate-plaza bat eskuratu ahal izango dute, orientazioa egin duten lehenasunezko ikasleek dagokien aukeraketa egin ondoren (beti ere Andoaingo erroldatutako lehenasuna errespetatuz). Eskariak plazaren eskaintza gainditzen badu, zozketa egingo da ofizioz. Zozketa horretatik itxaron-zerrenda bat aterako da, epe barruan egin diren eskariekin, eta itxaron-zerrendaren amaieran geratuko dira epe kanpo egindako eskaerak, sarrera-dataren arabera ordenatuta.

- Orientazioa egin duten ikasleek eta matrikulatu berri diren ikasleen itxaron-zerrenda egiten denean, bigarren itxaron-zerrenda hori ez da indarrean jarriko orientazioko ikasleen itxaron-zerrenda lehentasunean dagoen bitartean, hau da, urte horretako urriaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.
- Aukera-berdintasuna bermatu ahal izateko, itxaron-zerrendak indarrean egongo dira zerrenda osatu den ikasturtea bukatu bitartean. Ikasturtea amaitzean, desegin egingo dira, eta ezingo dira erabili plazak lortzeko lehentasunezko zerrenda gisa.
- Hurrengo ikasturterako matrikulazio-aldi berria hasi ondoren, itxaron-zerrenda berriak sortuko dira, baldin eta beharrezkoa bada.
- Orientazioko ikasturtea egin duen ikasle batek bigarren aukerarik egin ez badu, eta itxaron-zerrendan geratzen bada, baina irailaren 30ean plazarik lortzen ez badu, automatikoki igaroko da matrikulatu berri direnen itxaron-zerrendara, eskaera berriko ikasleekin baldintza berberak izango dituelarik.

6. KASU BEREZIAK

Dokumentu honetan, Musika Eskola arautuko duten alderdi orokorrak jasotzen dira. Hala ere, baliteke zenbait ikaslek arreta berezia behar izatea. Organo eskudunak onartu beharko ditu neurri berezi horiek, kalitatezko irakaskuntza bermatu ahal izateko, kasu bereziak dagokien moduan tratatuz.

6.1 - ERREFORTZU BEREZIKO IKASLEAK

Ikaslearen ezaugarriak, interesa eta atera dezakeen etekina kontuan izanda beharrezko ikusten bada ikasketa-prozesua trinkotzea ikasle hori goi-mailako musika-irakaskuntzara edo irakaskuntza profesionalera pasatzeko, sarbide-proba baterako eskatzen diren ezagutzak bermatzeko behar den prestakuntza eskainiko zaio ikasle horri.

Errefortzu bereziko ikasleek astean 60 minutuko saioak jasoko dituzte ikasgai nagusian nahiz musika-hizkuntzan. Errefortzua ikasle batek baino gehiagok eskatzen badute, musika-hizkuntza elkarrekin egitea egokia den aztertuko da, ikasle bakoitzaren maila eta beharrak kontuan izanda.

64/2024 Dekretuaren arabera, ikasle bakoitzak gehienez bi ikasturtetan jaso ahal izango du errefortzua.

6.2 - ANIZTASUNAREN TRATAERA

64/2024 Dekretuak adierazten duen bezala:

1. – Aniztasuna edozein pertsona-talderen berezko ezaugarria dela kontuan hartuta, aniztasunaren gaia landu beharko da Musika Eskolako ikasle guztiekin eta Musika Eskolaren antolaketa osoan.
2. – Musika Eskolan adin, interes, ezaugarri eta egoera pertsonal desberdinetako ikasleak daude. Musika Eskolaren heziketa-eskaintzaren bidez, bermatzen da banakako saioak, saio partekatutak eta saio kolektiboak modu egokian erabiliz, ikasle bakoitzak bere premiekin bat datorren arreta pertsonalizatua jasoko duela, eta, aldi berean, inklusioa eta interakzioa sustatuko direla.

Tratamendu berezia behar duten ikasleak beren beharren arabera tratatuko dira, eta ikasle horiek eskolako dinamika orokorrean integratzeko saiakera egingo da, betiere ikasle bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Musika-ikasketak egin ahal izateko, beti hartu beharko dira kontuan irakasleen irizpideak eta eskaera egiten duenaren ezaugarriak.

Ikasleak ikasketa-prozesua modu egokian egin ahal izateko ondorioztatzen bada beharrezkoa dela dokumentu honetako arau orokorretara egokitzen ez diren neurri bereziak hartzea (denbora gehiagoko saioak, zenbait ikasgaitan salbutsita uztea,

ONCE, DISLEGI, ASPACE, GAUTENA edo antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea), irakasleen klaustroak neurri berezi horiek proposatu beharko dizkio Udalari, ikasle horiei arreta egokia eskaintzeko.

Aipatutako dekretuaren 62. artikuluko 4. puntuaren arabera, Musika Eskolak prestakuntza-programak adostu ahal izango ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten kolektiboen elkarrekin espezializatuekin. Programa horiek elkarrekin espezializatuek eta Andoaingo Udalak berak kontratatutako espezialistek eraman beharko dituzten aurrera, eta, ahal den neurrian, eskolako talde arruntekin harremanetan jartzeko ahalegina egingo da.

7. IRAKASKUNTZA OROKORREKO IKASTETXEEKIN ELKARLANA

64/2024 Dekretuko 65. artikuluko arabera, «musika-eskolek prestakuntza-programa bat adostu ahal izango dute dagokien udalerriko edo musika-eskolaren eremuko irakaskuntza orokorreko ikastetxeekin (haur, lehen eta bigarren hezkuntza), musikaren irakaskuntza ikastetxeen hezkuntza-programan eta eskola-ordutegian txertatu ahal izateko eta irakaskuntza horrekin musika-eskolan jarraitu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa izango da bi ikastegiak ondo koordinatzea eta musika-eskolak jarraipena egitea. »

Horrekin loturik, Andoaingo Udal Musika Eskolak lankidetzajarduerak proposatuko ditu ikasturte bakoitzean, eta hala, neurri berriak proposatu ahal izango ditu urtero.

Horrela, ikastetxe eta ikasturte guztiekin lankidetzan bermatzeko eta ahalik eta ikasle gehienengana iristeko saiakera egingo da.

Musika Eskolako irakasleek zenbait lan-ordu izango dituzte astero jarduera horietarako. Elkarlan hori aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera-planean parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleekin ondo koordinatuta egotea.

8. BIZIKIDETZARAKO NEURRIAK

Musika Eskolak ahaleginak egingo ditu, beti, berdintasuna eta errespetua bermatuko dituen elkarbizitza-gune izateko. Horrekin loturik, era honetako gatazkak konpontzen ahaleginduko da:

- Kulturen arteko desberdintasunek eragindako gatazkak
- Arrazan oinarritutako gatazkak
- Generoarekin eta/edo sexu-aniztasunarekin lotutako gatazkak
- Bizikidetzagatazkak: bullynga, eskola-jazarpenera, mobbinga...

Horretarako, ikasle guztien eskubideak bermatuko dituen bizikidetzaplan bat egingo du Musika Eskolak, eta biktimen alboan egongo da beti, edozein jarrera mingarri edo kaltegarriren aurrean lagunduz.